

MUXIKA » EKONOMIA

Inama enpresak EAEko Arartekoak egindako kritikei

erantzun nahi izan die

«Ez gara enpresa klandestino bat eta edozein dokumentazio emateko prestgaude beti, Arartekoak kontrakoa esan arren», azaldu dute arduradunek

MAITE ZABALONDO

Muxikako Inama enpresak, EAEko Arartekoak egindako adierazpenei erantzun nahi izan die. Horretarako, prentsa ohar baten bitartez, euren iritzia aurkeztu dute hedabideetan.

Ekainaren 20an Iñigo Lamarka Arartekoak Inamari buruzko txosten bat helarazi zion Muxikako Jabier Gezuraga alkateari. Bertan, enpresaren jarduera kritikatzan zuen eta, aldi berean, Udalak horren aurrean izandako jarrera ere salatzen zuen. Galiziako enpresaren jarduera legezkoa ez dela azaldu dute txosten horretan.

Guzti horren aurka Inamak bere iritzia eman du. Inamako bozeramaile batek azaldu duenez, «Inama enpresa bat den heinean, bere ondorio positiboak eta negatiboak eragiten ditu. Hori bai, ondorio negatiboak sortzen direnean, ahal den neurrian konpontzen saiatzen da enpresa».

Arartekoaren iritziz, «enpresak 1994an zuen klandestinitate egoera berean funtzionatzen du». Inamak adierazpen horri erantzun nahi izan dio. Enpresako bozeramaileak dioenez, «1964an sortutako enpresa bat da eta bere lana taula aglomeratuak egitea izan da hasieratik. Orduetik hona hainbat lanpostu sortu ditu Busturialdean eta aberastasun handia eragin du».

Ingurumen-efektuak

Industria batek ondorio ezberdinak eragin ditzake ingurumenen. «Inama enpresak bere eragin konplexuak ere sortzen ditu. Adibidez, zarata arazoak izaten dira, baina neurri handi batean konponduta daude. Zarata maila asko jaitsi da, horretarako ezarritako neurriak gehitu direlako».

Enpresa galziarrak Integratutako Ingurugiro-baimena aurkeztu dio euskal administrazio publikoari. Bertan enpresaren aktibitate guztien berri ematen dute, eta baita orain arte enpresak hartutako neurrien eta hemendik aurrera hartuko dituztenen gaineko informazio guztia.

Finsa-Inamak, Ingurumen Departamenduak eskatutako dokumentazio guztia entregatu du, orain arteko desadostasun guztiak konpontzeko asmoz.

«1963tik Inamak taula aglomeratuen enpresa bat jartzeko lizentzia du. Orduetik, 40 urtetan Muxikan egin dugu lan, aberastasuna eta lanpostu asko sortuz. Behar bezala ordaindu dira zerga guztiak eta enpresa klandestino batek ez du horrela jokatzeko».

Teknologia berriak

«Egia da lehen egunetik gaur egunera lan egiteko teknikak aldatu direla. Orain teknologia berriak erabiltzen ditugu, prozesua modernoagoa da, baina horrek ez du esan nahi legez kanpoko prozesu bat erabiltzen dugunik. Hasierako lan berdina egiten jarraitzen dugu», esan du enpresako bozeramaile batek.

Arartekoak Udalari Inama enpresaren jarduera legezatzeko sei hilabeteko epea ematea gomendatu dio.

Denbora tarte horretan legez kanpokoak diren neurriak aldatzea nahi dute; bestela, Galiziako enpresa ixteko agindua ematea eskatu dio EAEko Arartekoak Jabier Gezuraga Muxikako alkateari.

PROZEDURA

Inama enpresak 1994tik ona lan egiteko prozedura bera jarraitzen du, teknika ezberdinak erabiliz

DOKUMENTAZIOA

Enpresak bere jardueraren inguruko informazio guztia aurkeztu dio Ingurumen Departamenduari

© Busturialdeko Hedabideak S.L.
Tel.: 946187299 Faxe.: 946881193
E-posta: busturialdea@busturialdekohitza.info
Zubiaurtar Kepa, 72 Bermeo



Internet Ehuntzen S.L.-k garatutako webgunea